

Nikolas Politen predikuak LUZAIDE, 1869

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Jose M. Satrustegi, 1987, Euskal testu zaharrak I, Euskaltzaindia, Iruña.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nikolas Politen predikuak LUZAIDE, 1869

I

Desamparo de Dios

Egungo Evangelioaq erraiten daugu S. Juan Bautistaq erreprenditzen ciela Herodes Erreguia, vere conata Herodiasequin zaraman vicitza desonest eta escandalosarengatiq: bana Herodes impioaq, S. Juanen amonestacioniaq entzun, eta vicitzaz cambiatu behar vidian, manatu cien sar cezaten presundegui batian. ¿Eta certan iduritzen zaucie baratu cela, Yaincoaq S. Juan bautistaren medioz igortzen zazcon avisez, eguin cien desprecio ura? Aquituiq Yaincoa aren obstinacione eta rebeldiaz, desamparatu cien arima ingrat ura, privatu cien vere ausilioetaiq, eta ilez vere becatian yautsi cen erretzera Ynfernian eternitate batez.

Mement untan izan nahi nuque S. Juan Bautistaren celo eta izpiritia, cier errerepresentatzeco cer estutu lastimagarrian erortzen diren Yaincoaren itzaz aprovechatzen eztirenaq, concienciaco arrangura eta graciaren inspiracioniaq despreciatzen tuztenaq, eztutenaq casuiq eguiten confesorren eta predicadoreen erreprentacionez, eta becatiaq becatien gainera emendatzen tuztenaq, vicitzaren cambiatzera veinguaz determinatu gabe. Orieq guciaq ordinariozqui izaiten dira azquenian yaincoaz desamparataiq Herodes bezala, eta precisqui izan behar dute acabantza edo finitze vera. Desgracia terrible untaiq preservatzeco,

eracustera eman gogo dauciet egun yaincoaren desamparo ori dela aren Mayestatiaq, becatari bati igor dezaquen punimenduiq aundiena; eta dembora verian icusico ducie cer gauza ttipien gatiq erortzen den estutu miserable untan.

Erran dut mundu untan becatari bati Yaincoaq igortzen ahal dacon punimenduiq aundiena dela vere arimaren desamparatzia edo abandonatzia. Punimendu unen comparacionian yeus eztira eritasun crudelenaq, dolore terribleenaq, prisione penosenaq, ez etare guerla peste eta gosia: orreq guciaq eztu icustecoq Yaincoaren desamparuaiquin, ceren azquenian gaitz orieq guciaq dira Yaincoaren avisaq, dira vere misericordia infinituaren deitze eta ausilioaq, amorocatican eta guizonaq ideq ditzan veguiaq eta urriqui dain vere culpez, guisa untan Ceria logratzeco: bana Yaincoaren desamparua da privatzia becataria auxilio gucietaz eta destinatzea Ynfernucio su eternalera. Eguia da maluros orieq vici diren vitartian yaten dutela, edaten irri eguiten, livertitzen, munduco untasunez eta plazerrez gozatzen, eta guizon uros batzu iduri dutela; bana errealqui dira miserable batzu: vere arimaq daude Yaincoaz desamparatiaq, eta bacarriq falta da separa diten veren gorputzetaiq yausteco erretzera Ynfernian.

Eta nola iduritzen zaucie eltzen dela estatu lastimos untara? Cembait gauza gure idurico ttipi eta funsgabecuengatiq. Yzpiritu Saindiaq erraiten du nehor eztela gaisstatzen derrepente eta golpe batian, baicican emequi emequi eta falta ttipi batzuin medioz. Curiositatez leitzen den liburu gaissto bateq, idequitzen tu veguiaq iniquitate eta gaisstaqueriara. Compañía gaissto bateq bereala eracusten du becatu eguitera. Exemplan gaissto bateq, icusi cen accione dorpe bateq entzun cen conversacione desonest bateq, uzten dute viotzian maliciaren acia. Aita amen lazaqueria bat, veren aurrer eman zuten libertate pussca bat izan ciren becatu eguiten asteco causa. Seme ura izanen cen beti virtuos eta atenta, baldin vere Aita-ameq ezpalirote permetitu gabaz echeti ateratzera, eta yuntatzera bertze lagun gazte libertino eta educacione gaisstocuequin. Doncella ura izanen cen honesta eta erretiratia, baldin vere Ama gaisstuaq ezpalaco permetitu yuaitera vilcuna nahasi eta reunione lanyerosetara. An icusi cien accione indecenta libertate desonesta, entzun cien cantu eta conversaciones arralleriazcoa, soin cien modara, eta gauza orieq gucieq piztu zuten aren viotzian vanitate eta modetaraco aficionia eta bertzeer agradatzeo eta equin tratatzeco desiraq. Vista, conversacione, adissquidantza eta comunicacioneequin galdu cien ahalguia eta urgoitasuna; ya iduritzen zaco guti ezpadu eguiten bertzeeq eguiten dutena; entregatzen da liberticionetara, ya ezta beldurtzen lanyerrez, peligruez eta ocasionian ezarriq vorchatia da becatian erortzera.

Vein ahalguia galdu eta lehemicico becatia egunez gueroz, ya etzaco iduritzen lehenago bezain itsusia, eguiten tu bertze natzu verritan, formatzen da costuma gaissto bat, eta ya eztu senditzen lehenago izaiten citien concienciaco arranguraq. Becatien errepeticionaiquin iluntzen da adimendia, gracia divinoaren ausilioaq erretiratzen dira eta azquenian erortzen da arima viotzeo gogortasunian, ceina baita Yaincoaren desamparuaren seinaleiq clarrena. Ycusacie cer gauza lehemician ain ttipiengatiq gure idurico, erortzen den arima estatu nigargarri batian. Erran bezate bertzenaz aimbetze becatari escandalos eta ohoreiq gabecueq, cein izan cen vere erortze eta escandalen causa, eta aurquituco ducie izan cela bacarriq behatze edo soite bat, arralleriaco solas bat, eta accione indecent bat.

Anitz dira Escritura Saindiaq eracustera emaiten dauzquigun exempliaq; bana ez sobera luzatzeco fixa dezagun gure atencionia David Erreguiaren baitan. ¿Cerq iduritzen zaucie erorahaci ciela Erregue Saindu au adulterioan Uriasen emaztiaiquin? Etzen bada astapena izan maliciaiq gabeco soite imprudent bat beciq: soitetiq guertatu cen desira, desirari

seguitu ciren adulterioa, Uriasen eriotzia eta Erresuma guciaren escandala. Eta baldin aimbertaine efektu eta ain gaisstuaq causatu bacitien ya adinetaco guizon virtuos eta saindu batian, emaztequi baten vistaq, ¿cer efektu eztuzte causatuco Yaincoaren beldurtasunig gabeco gazteetan soitiaq adissquidantzaq conversacionioniaq arralleriaq eta libertatiaq emazte licenciasequin? ¡O eta cein casu guti eguiten den gauza orietaz guiristinoen artian! Calificatzen dira funsgabetasun eta aurquerietaco, eta pretenditzen da erre pasahaztia egungo eguneco costuma eta política edo urbanitatiaren modaletaco, bana modale eta usaya orieq dira cembait aldiz anitz arimen condenacioniaren causa. ¡O familiaco aita-ama miserabiliaq! Comprendi zacie untsa au dela cien eta cien aurren perdicioniaren astapena.

Gauza lehemician ain ttipi eta funsgabecuengatiq desarrañatzen dira costumaq, eta vehin desarrañatuz gueroz arima, aisa laster eguiten du gauza gaiisto bateti bertzera; ceren Yzpiritu Saindiaq dion bezala, becatu bateq deitzen du bertziari: Becatien erreverritze untaiq formatzen da becatu eguiteco errachtasuna, eta arrachtasun orri seguitzen da segurtamen edo seguritate falsu bat ceinarequin vici baita becataria vere culpen erdian: culpeq ttipitzen dacote arrazoinaren arguia; Yaincoa erretiratzan da arenganiq ecin sofrituz aimbertaine becatu: ya eztu deitzen aren viotzari bertze aldiz bezala, eta orrengatiq becatariaq ya eztu ezautzen vere arimaco estatu tristia. Elduzgueroz estatu miserable untara, ya eztu espermentatzen vere viotzian, lehenago sosegatzera uzten etzuten inquietamendu heq; ya eztu apenas senditzen concienciaco arranguraq, eta ementiaq eldu da gueldiaq egoitia eta sosegatia vere becatietan, batere erremedioiq aplicatu gabe vere arima malurosari: Ycusacie emen becatari bat Yaincoaz desamparata eta menturaz secula convertituco eztena, aurquitzen delacotz gogortia aren viotza, eta erori delacotz casi impenitencia finaleco estatu batian, ceina ezpaita barcatzen vicitza untan ez etare bertzian. Yaincoaz desamparatuiq doon becatari batendaco, ¿cer erremedio izan daiteque? Yaincoaz abandonatzen badu, ¿norq converti dezaque?

Sacramendieq eztacote aprovechatzen, eztu casuiq eguiten conseilu unez, mehachieq eztute lotsatzen, ezta beldurtzen punimendiez, eriotziaren memoriaq eztu icitzen, ez etare icaratzen Ynfernucopensamendiaq: itz batez, aplica ditezquen erremedioiq fierrenaq, dira arendaco inutilaq eta provechuriq gabecuaq, ceren aren viotza doo insensiblia eta arri bat bano gogorragua. Guisa untaco viotza ya ezta verachten icusten badu ere idequiaq Ynfernia, eta eztaquit nehoiz convertituco den yin balaquio ere Ceruco Aingeru bat predicatzera. Etzaciela pensa exageracioniaq direla: itzulacie vista Faraon, Antioco, Yudas eta Escritura Saindiaq citatzen tien bertze anitzer: considerazquitzie entzun zuzten mehachiaq, vere baitan espermentatu zuzten punimendiaq; eta vizquitartian il ciren vere becatian. Orrengatiq casi erraitecotan noo Yaincoaz desamparatuiq doon becatari bati desira dezazquegun gauzaq favorableena de la vere Mayestate Divinoa apesura dezan aren condenacionia, eta igor dezan ahaliq lasterrena Ynfernura, ceren mundu untan vici deno, emandatu eta multiplicatu behar tu vere becatiaq, eta aunditu guisa untan Ynfernucop tormentiaq.

¿Yduritzen zacie becatari bat eldaitequela estatu lastimagarriago batera? ¿Eta etzizte eriotziaz veraz bano gueyago icaratuco Yaincoaren desamparuaz? Bay, E. A. M. ceren den Yaincoaz becatari bati igor dezaquen desgraciaiq aundiena eta gaztigüiq terribleena. Beldur cizte veraz becatara itzultziaz; ceren lehemico eguiten ducien lehemico becatiaq beteco du izaria, eta ordian ya ezta erremedioiq cientzat: bereala izanen cizte Yaincoaz desamparataq eta ilen cizte cien becatian. Converti cizte Yaincoari viotz gucitiq, ez gueyago becatuiq eguin Aita bat ain misericordios eta unaren contra: eta guisa untan espera dezaquecie barcamendia,

gracia eta ceruco gloria.

II

Gurasoen exenpluaz

Egungo Evangelioaq erraiten daugu Virgina Saindia eta S. Jose yuan cirela Yerusaleneco irira eta presentatu zutela Templuan J. Cristo ofredituz Yaincoari aur sortu verri ura Templuan aurquitzen ciren gucieq etzuten condatzan aur sortu verri artaz gauza miragarriaq beciq. Virgina Mariaren alegria izanen cen completa eta osua, baldin S. Simeoneq Yzpiritu Saindiaz arguituiq ezpalaco erran: Zuq presentatzen duzun aur au, baita oray zure consolu gucia eta guizon gucien gloria eta Salvazalia, izanen da egun batez zure viotzeco tormentia, eta vere doloriaren ezpataquin izanen da traspasatia zure arima. Tuam ipsius animam pertransibit gladius. Au da Evanyelioaren historia: eguin dezagun oray aplicacionia. Lehenagoco leguiaren arabera bada presentian costuma bat obligacionezcua izan gabe cieq amaq practicatzan eta conservatzen duciena, ceina baita cieq Elizara presentatzia aurra sortu onduan galdenuinez apezaren benediccioia eta otoitzaq. Ordian yiten cizte ordinariozqui alegriaz betiaq, bana gu arguitiaq baguina Yzpiritu Saindiaz S. Simeon bezala, cembat amer erran ahal guinezaque: oray aimbertzegoria eta satisfaccione emaiten dauzun aur sortu verri ori izanen da demboraiquin anitz pena eta nahigabeen causa eta izanen da ezpata bat bezala pasatuco diena crudelqui aldian bertze zure viota. Tuam ipsius... ¿Eta cerengatiq eguin ahal guintzazque anuncio triste hoq? Aita-ameq veren aurrer emaiten duten educacioneiqu yeusere edo gutiarengatiq, nuntia eldu baitira, anitz gaiz izpiritualer landa, familiaq atormentatzen tuzten affliccioe pena eta nahigabe guciaq. Baldin cieq, aita-amaq, desiratzan baducie cien aurraq izan ditzen cien consolia eta ez cien tormentia, educazquitzie proposatzara nuan iru erregla oon arabera: 1. icus ditzatela cien baitan exemplu saindiaq. 2. icas ditzatela cien ganiq maxima unaq; eta 3. errecibi ditzatela cien ganiq correccione prdentaq. Ycusten dut sobera luzatu behar nuquela esplicatu behar banitu iru erreglaq, eta ortacotz conentatuco niz egun mintzatziatz aita-ameq veren seme-alaber eman behar duten exemplu unaren gainian.

Aita-ameq veren seme-alaber eman behar duten exemplu una, da punduiq importantena een educacione un batendaco: exemplu un au gabe itzazo eracusteiq ederrenaq dira inutilaq; amodioa galtzen da, eta aurraq mehachu eta punimendiequin gueyago gaisstatzen dira. Bana exemplu una, oraino solasiq gabe-re da indartsia aurraq untsa educatzeco, bana exemplu una gabe, bere condu eta diligencia guciaq dira galdiaq, vanuaq eta aferraq.

Orrengatiq S. Pablo Apostoliaq (desiratzuz) nahiz vere discipulu S. Timoteo izan zahin vere Elizan Aita izpiritual perfect bat, encargatzen zacon vere amodioaren indar guciaiakin eman cezala exemplu una vere feligreser vere itzetan, eletan, caritatan, fedian eta garbitasunian: Exemplum sto fidelium in verbo, in conversatione, in charitate, in fide in castitate. (Thim. 4-12.) Consideratzen cien S. Pabloq aviso guciaq, predica guciaq eta J. Cristoren ministroen mehachu guciaq izanen cirela inutilaq, baldin vere obra gaisstuequin deseguiten bazuten vere itzequin eracusten zutena. Ortacotz encargatzen zacon aimbertzegoria Apostoliaq S. Tito vere discipulu maitiari: Iin omnibus te ipsum prebe exemplum bonorum operum. ¿Nahi duzu zure feligresaq, zure hume izpiritualaq unaq izaitia? Oroitzite bada behar duzula yuan een (aitzinian) aitzinera vertute gucien exemplu argui bat bezala.

Aita amen exemplia izan da mende gucietan aurren obratze maneraren gauzaiaq

boteretsiena: ceren seme-alabeq comuzqui faciunt quod vident, pensatzen dute aita-ameq bezala, obratzen aita-ameq bezala. Baldin aita-amaq vici badira aferqueriari emanazq, vere hacienda edo untasunaq manejatu gabe, echeco lanetart aplicatu gabe, trabailiari lotu nahi gabe ¿izanen dira lanerat aplicatiazq vere semiazq? Baldin aita bada yocolari bat, vere irahazten tien yornalaq, ditien ditien diuriaq gaizqui gastatzen tien suerte edo fortunazco yocuetan, Elizaren eta legue civilaren disposicionez aimbetxe aldiz defendiatiazq daudenetan ¿icasico du semiazq buruzaguien leguiaq obeditzen, Elizaren determinacione saindiazq errespetatzen, eta igues eguinen du untasunen galtzeco, costuma unaq corrompitzeco eta echeen destruitzeco beciq ez tiren yocuetiazq? Aita bada edanari emana, ostatian vere yornala galtzen diena, berant echerat erretiratzen dena, eta ordian ere echerat yuan eta vici gaisstua emaiten diena, arnegu eta madariccione esacandalosazq dariola, eta vere ematzia gaizqui tratatzen diena ¿icasico dute aurrez amain errespetatzen eta costuma unaq corrompitzen tuzten itz gaisstuaq aborrecitzen? Ez: aurrez eguiten dute icusten dutena: faciunt quod vident: eta laster izanen da semia guisa untaco exemplu gaisstoequin afer bat, yocolari bat, edale bat, madariccione eta yuramentu eguile escandalos bat. Aita balin bada familien naaszale bat, pleitista betico bat, urguluz betia envidios bat, etsaitasunian doon bat, ¿izanen da semia eguiaren maitazalia, proximuendaco onguieguile bat, sufritia trabailietan, agravio eta persecucionetan pacienciazco bat, eta inyurien barcazale bat? Ez: faciunt quod vident. Orrengatiazq niq ez tut dudatzen disputiazq gabeco egui au segurtatziazq, ez bacarriq eguiten dutela becatu mortala aitaameq maiz guisa untan obratzen dutenian, ceren faltatzen duten Yaincoaren leguiari, baicican eguiten dute ere bertze becatu mortal berri bat vere exemplu gaissto oquin aurrer emaiten duten escandalaingatiazq, eman behar vidian exemplu una vere itz eta obretan.

Baldin ama bat bada vanitateen maitazalia ¿veztituco da alaba honestqui? Amari agradatzen bazazco liverticione lanyerosazq, behar ezten lecutara ateratzen bada echetiazq necesitateiazq gabe ¿alabaq vere adinaren verdetasunian, vere pasioneen verotasunian, reprobato tu desorden hoq, igues eguinen du peligro otiazq gucietaiazq, vicio da erretiratia complituz batayo Saindian, munduco pompa eta vanitatetaiazq urrunduco cela, eman citien promesa heq? Ez: baicican nolacua den ama, ala izanen da alaba, dio Yzpiritu Saindiazq: Qualis mater filia. (Eceq. 16-44.) Amaq ezpatu errecibitzen Sacramendiazq, ardura murmuratzen badu, ardura garbitasunaiquin untsa eldu ez tiren solasazq mintzatzen batu ¿izanen da alaba ichila, garbia itzetan, eta urbilduco da ardura Sacramendien errecibitzera? Ez: faciunt quod vident: eta ez sobera luzatzeco, erran dezagun S. Geronimoiquin familiaco ama bati erraiten zacona vere alaben educacione unaren gainian. Nihil in te aut in Patre suo videat, quod si fecerit peccet. Condu achicazu, erraiten cion S. Geronimoq, zure alabeq eztezaten icus ez zure baitan ez etare vere aitaren baitan gauzaiazq equin concienciaren garbitasuna galdaitequeni: etzazula permiti anaya arrebazq elgarrequin etzan ditzen adimendura eldu onduan; ez utzi gabaz echetiazq ateratzera bacarriq principalqui alabaq eta gauza gucien gainian ez beinere consentitu tratu edo adissquidantza ecin gueyago peligros orieq. S. Geronimoq itz oriequin ez tu erreprobatzen eta niq ere ez tut devecatzen presunazq elgarrequin mintzatzia eta visitatzia, au eguiten bada beharrez eta honestqui; bana bay pretenditzen dut utzia presuna gazteen arteco conversacione luzaraco orieq, elgarrequin beharriq gabe egoite orieq: pretenditzen dut cieq, aitaamaq unen gainian condu izanez, alde eguinahaz dezacien lanyer eta ocasionetiazq cien aurrer: pretenditzen dut, cieq ez bacarriq eracus dezacien itzequin, heq mehacha ditzacien, baicican exemplu una eman dezacien obrequin ere: pretenditzen dut etzizten contenta erranez: Zuazte mezain entzutera, zuazte predicura, arrosariora, coosatzera vezperetara, baicican desiratzen erran dezacien: guacen aurrazq mezara, guacen predicura, arrosariora, coosatzera, vezperetara, itz batian, pretenditzen dut, desiratzen dut eta exortatzen S. Pablo Apostoliaiquin, izan cizten cien

aurren exemplu una, fedian, castitatan, caritate edo amodioan, humilitatan, baquian eta vertute gucietan. In omnibus te ipsum praeve exemplum bonorum operum. ¡O baldin guisa untan porta balite aita-ama guciaq! ¡Eta cein bertze maneran egon laitequen mundia! ¡Cembat escandala gutiago icus litezquen! ¡Cembat gueyago veiratia izan laiteque garbitasuna eta iguestia desonestqueria! Oray aita-amaq quechatzen cizte mundia gaisstatu dela: orayco aurretan aurquitzen dela cien aur demboran bano malicia gueyago. ¿Norq ditu oberenaq? ¿Cer? ¿etzinuzten cieq gure adinian guq oray ditugun pasione veraq, gure inclinacione vera becatuta? ¿Norena da veraz falta? Aita-amena. Gure baitan aurquitzen bada gueyago malicia, da eztugulacotz icusten cien baitan, cieq cien aita-amen baitan ¡cusi cinuzten exemplu unaq. Cieq pasatzen ducie gau osuaq behar ezten lecutan (echera yuan gabe), eta nahico ducie cien aurraq izan ditzen erretiratiaq. Cieq egoiten cizte ostatian. Meza eta Elizaco Oficioaq erraiteco demboran, eta nahico ducie cien aurraq yuan ditzen puntualqui cieq profanatzen tucien Elizondo Oficio orietara. Cieq etzizte coosatzen urtian vehin beciq edo menturaz ez beinere urtian, eta nahico ducie cien aurraq urbil ditzen ardura Sacramendien errecibitzera. Ezta, ez, ori posible: exemplia, exemplia aitaametan da aculuiq fierrena eta boteretsiena aurraq...

Desengaña cizte aita-amaq, cien aurreq egoiten dutela cier icusten dutena eta mintzatzen cier aitzen dutena; eta ortacotz obligatiaq ciztela cien semeer exemplu unaren amaitera.

Azquenian aurraq untsa instruitu eta exemplu unaq eman onduan, ateratzen badira vizquitartian inclinacione gaisstocuaq, ordian behar ducie gaztigatu, utzi gabe secula segui ditzaten inclinacione gassto orieq; ceren obe da punitiaq izan ditzen emen Ynfernian bano. ¡Ah Cembat gueyago (erraiten ahal nuque) erran ahal nezaque niq oray obligacione oon gainian! ¡Cembat erran ahal nezaque ere cembait aita-amen contra; permetitzen dutenaq atera ditzen echetiq bacarriq bay semiaq bay alabaq eta verdin ilun onduan gabaz condu achiqui gabe nun eta norequin ibiltzen diren! ¿Au da aita-amen obligacioniaq complitzia? Bana eztut molestatu nahi cien atencionia sobera luzatuz: preferatzen dut gauza otaz mintzatzia bertze ocacione batian. Considera zacie, aita-amaq, cein lanyer aundian aurquitzen cizten; eta eman behar duciela condu Yaincoari cien eta cien aurren arimetaz, eta baldin cien faltaz galtzen badira, cieq pagatuco duciela cien arimequin Ynstruizquitzie veraz eta eracutsi gauza unaq, eta corregitu gauza gaissto guziaq: etzeeciela secula permiti errepostu gaisstoiq itzultzia, punizquitzie atrevencia orieq, eta gauza gucien gainetiq veira cizte untsa exemplu gaisstua emaitetiq cien itz eta obretan, amorocatican eta cieq eta heq conseguir dezacien Yaincoaq guretaco destinatia dien eternitateco gloria.

III

Fedezco eguia den bezala behar dugula guciec il vein, semel mori, da ere fedezco eguia iltzen guiren pundian behar dugula izan yuyatuac eta sentenciantuac: et post hoc iudicium. Eta baldin eriotzea, sabant batec dionaz, balin bada gauza terribleen artean terribleena, bacarric ceren den gauza temporalen fina edo acabantza ¿cer izanen da consideratzen badugu dela ere gauza eternalen astapena?

Lancea da ain icigarria eriotzeari seguitzen den yuyamendu au nun, pensatzeac verac icarahaci izan tu Elizaco Sainduric aundienac. ¡Ve mihi de die illo terribili! ¡Ay nitaz! ¡Ay nitaz! erraiten zuen S. Juan Crisostomoc, eltzen denean conduac emaiteco egun terrible ura! ¡Ay nitaz miserabilia! erraiten zuen icituric, S. Bernardoc (lotzaz); beldurrez betea ene conciencia becatuz cargatuarengatic, nola egonen naiz yuyamenduan burua apalduric icaratua Yaunaren presencian! Lancea terriblea, guciz terriblea, dudaric eztu: bana da gauza

ain importante aren consideracionea nun, bacarric au izan da asqui anitz becatoros aundien convertitzeco. Egun veraz, E. A. M., eldu naiz unen gainean mintzatzeco intencionearequin.

Yuyamendu au terriblea eta icigarria eguiten duen lehemicico gauza da Yuyazale divino aren aitzenean arimac presentatu izan beharrac. Ezpainetarie arima ateratzen den bezain laster aurquituco da Yaincoaren aitzinean: ezta munduco tribunaletan bezala izanen demborari pensatzeco, preparatzeco, otoizteco, influenciac arartecotasun ezartzeco. Ez: iltzeco azquen atsa eman eta izan Yuyazale Divinoaren aitzinean presentatua; atera gorputzetic eta sartu Yaincoaren tribunalean, dena izanen da bat, dena guertatuco da golpe batean: in ictu oculi. Gorputzetic arima separatzen den lecu artan verean izanen da au yuyatua. An, J. Cristo gure Yaunac verac personalqui yinic, esperatuco du, escatuco dazco conduc eta sentenciatuco. Arima gasstoac, utziric vere lagun maitea gorputza, verala errecontratuco da vere Yaincoarequin ceinac erranen baitaco: Arima, emazquidatzu zure viciaren conduc: redde rationem vilicationis tuae. Zato unat, arima ingrata, erranen daco becatariari, emazquidazu conduc eguin dauzquizutan merchedez. ¡Oh! ¡nolacoa izanen den arima orren (beldurra) icara icustean visean vis vere redentorea coleraz betea! ¿Cer ihardetsico du carguari? ¡O mementu egiazqui icigarria! Dio S. Bernardoc gueyaco sofituco duela arimac icustean J. Cristo coleratua, guero Ynfernuan verean bano.

Escritura Sainduac condutzen daugu Ester Erreguina presentatu cela egun batez vere senar Asuero Erreguearen aitzinean, au vere tronoan yarriric zagolaric, corona buruan, cetroa escuan, vere visaya edo vitarte mayestateg betea eta inguratua erresumaco yende aundi eta corteco presuna principalez; eta ain aundia izan cen escena imponent unec Erreguinaren baitan eguin zuen impresionea nun galdu zuen colorea eta erori cen desganaturic laguntzen zuen dama baten besotan. Eta adverti zacie Ester cela Asuero Erreguearen esposic maiteena, etzuen faltatu ezcontzaco fidelitateari, etzen batere sospecha edo arrangurarie aren honestitateaz. Veraz Erregue baten mayestateg guisa untan confunditu eta icaratu bazuen vere espos maite eta fidel ura ¿cer izanen da arima infidel batec, vere vician eguin tuen becatu guciez inguratua, fixatzen duelaric vere vista Yuyazale Divino coleratu artan? ¿Cer pena eztu sendituco icustean arima batec aimbetze despreciatu zuen J. Cristo ura? Oray paciencia ain aundiarequin becatariac sofitzen tuen Yainco guizon ura, egonen da orduan iraz, furiaz betea, eta arimac icusico du estatu ain icigarri ortan, vere suplicac, otoitzac, nigarrac, guciac aren eztitzeco eta viurtzeco asqui izan gabe, ceren pasatu cen misericordiaren dembora. Orduan, arima becataria, beldurrez, desesperacionez betea, ecin sofituz zure Yainco eta Yuyazalearen vitarte terriblea erranen duzu Job sainduarequin. ¡Oh! norc eguin lezaquet Ynfernuan gordetzeco merchedea zure furorea pasatu (vitartean) artio! ¡Quis mihi tribuat ut in inferno abscondas me donec pertranseat furor tuus! s. Juan Evangelistac, J. Cristoc bertze Apostolu guciene gainean maite zuen discipulu guciz casto eta garbi arec. icusi zuen yuyamendu particular unen ichura edo iduri bat: icusi zuen artan Yuyazale Divinoa, cein baita J. Cristo, vi veguiac garra bezala piztuac zauzcala: visaya iruzquia vera bano arguiago eta aren ahotic ateratzen cela ezpata bat vi aldetarie chorochtua picatzen zuena: et de ore ejus gladius utraque parte acutus exibat. Eta Evangelista Sainduac icusi zuelaric mayestategco, furorezco seinala ain aundiequin, icaraz erori cen desganaturic ila bezala: Et cum vidissem eum cecidi ad pedes ejus tanquam mortuus. Oray veraz, erran zadazu conciencia gabeco guiristinoa, S. Juan Evangelista bat, cein conservatu baitzen garbia eta castoa vere vici gucian, guisa untan icaratzen eta beldurtzen bacen Yuyazale Divinoaren presencian, bacarric figuran edo representacionean izan cen yuyamendu artan, ¿cer izanen da cinezco yuyamenduan, eguiatzqui Yuyazale Divino coleratuaren aitzinean, zure burua icusten duzunean zuc, S. Juan baten garbitasuna

eta castitatea eztuzuna, zuc desonestqueriaco loyan sartua vici cirena? ¿Zu adisquidantza dorpeetan nahasia aimbertze dembora dela vici cirena? ¿Cer eguinen duzu miserablia? Eta zuc emazte escandalosa Satanasen instrument provocazalea ¿cer eguinen duzu yuyamendu artan aurquitzen cirenean? ¡Ay! oray nic badaquit eztuzula otaz casuric eguiten, ez confesoreen avisoez, ez Yaincoaren inspiracionez: oray, diozu zure baitan, yan edan dezagun, liberti guiten, vici guiten alegre, quenzquitzu ortic, eriotzeco yuyamenduco icaratzen duten pensamendu oriec: ¿nor vici laiteque orietan beti pensatuz? Oriec untsa yinen dira guero, adin batera eltzen garelaric, munduaz desenganatuac, aseac aurquitzen garenean; bana oray eman behar zaco demborari vereaa ¡O mundu tzar maximac arimac milaca Ynfernurat eremaiten tuztenac! Eta baldin ideya orietan seguitu nahi baduzu, ¡ay zure arima ortaz icusten delaric tribunalean Yuyazale Divinoaren (aitzinean) presencian!

Yuyamendu au icigarria eguiten duen vigarren gauza da artan escatuco den condua. Ezarria ya arima Yuyazale Divinoaren aitzinean ceinen presencian asistituco baitute Aingueruec eta Ynfernucio etsayec, batzu (defenditzeco) defensaren eguiteco, bertzeac acusatzeco, escatuco zaco condu chehe bat adimendura eldu cenetic, erran, pensatu eta eguin duen guciac, dena escatuco da eta (izartu) nehurrituco delicatasun aundienarequin. AM rigurosa eta ertsia izanen da becatariet escatzen den condu au nun, itz afer bat ere gueldituco ezpaita examinatu eta sentenciatu gabe. J. C. Yuyazale Divinoac lehenic escatuco daco condua eguin zazcon merchede eta favorez: nic, erranen dio, bertze anitz utziric, sortu eta ezarri cintuan munduan; nic zu salbatzeagatic guizonaren naturaleza arturic vici izan nintzan munduan pobrea, despreciatua, izan nintzan azotatua, elorritz coronatua, gurutze batean vi ohoinen artean ezarria nun eman bainuen ene vicia eta odola, ¿Cer eguin nezaquen zuregatic eguin dutana bano gueyago? Nic esperatu eta sofritu cintuan aimbertze urtez misericordia aundienarequin, ene adissquidantzarequin ceruarequin convitatzen cintuala: ihardetsazu, eman zadazu condu zuregatic ichuri nuen odolaz. Ycus dezagun nola corresponditu ote duzun; certan empleatu tuzun zure osagarria eta untasunac; cer eguin duzun ene ezautzeco cinuen izpirituaz, nitaz oroitzeco cinuen memoriaz, ene maitatzeco cinuen viotzaz. Becataria, icaratua, trublatua acusacione eta cargu oquin, eztu yeusen ihardesteco (valore) curayaric izanen: eta orduan Yuyazale terribleac aguerturic aren becatu guciac emanen daco oriequin vitartera erraiten diolaric Daviden itz oquin: Haec fecisti et tacui. Zato unat, arima ingrata, ¿etzira oroitzen nola eldu cinelario adimendura galdu cinuen Batayoa errecebitu gracia, zure adineco bertze lagunequin eguin cintuen ciquinqueriequin? ¿Etzira oroitzen nola hoc cofesatu behar videan gordetzen cintuen beldurrez, eta gaizqui cofesatzen cinen eta gaizquiago cominiatzen? Haec fecisti et tacui. Hoc eguin cintuen eta nic ichilic sofritu cintuan. ¿Etzira oroitzen nola adinean aitzinatuz bezala aitzinatu cinuen ere gaisstaquerian, nola seguitu cintuen iniquitatezco videac? ¿nola entregatu cinen vicio eta becatuetara particulazqui desonestqueriara, doncellac ezconduac alargunac provocatzen cintuela, barcatu gabe zure lohiqueria eta lujurietan ez adinari, ez estatuari, ez etare condicioneari? Haec fecisti et tacui. Au gucia eguin cinuen, eta ni ichilic egon nintzan. Zuc (odiatu) astiatu cinuen proximo laguna, izan cinuen artaz mendecatzeco desira, beinere viotzetic etzinion barcatu. Zuc despreciatu cintuen Sacramendu Sainduac, errecebitzen cintuen gaizqui eta verant: creaturez valiatu behar videan ene maitatzeco, etaz cervitzatu cira ene desoharatzeco; itz batez, izan cinen guiristinoa bacarric icenean eta ez obretan. Haec facisti et tacui. Baña, ¿cer? ¿ustecinuen beti ichilic egon behar nuela? Oray artio egon naiz ichilic, sofritu citut pacienciarequin: Tacui, semper silui, patiens fui: bana oray alchatuco dut ene votza, zure atrevecie merechi duten sententia emaiteco. ¿Cer ihardetsico duzu orduan, becataria? Yeus ere, yeusere; confunditua egonen cira ichilic ¿Bana ezta norbait alde ateraco? ¿Eznaute lagunduco Aingueru guardiacoac, Apostoluec, eta ene iceneco sainduac; eztaut

(logratuco) conseguituco misericordia Maria saindua becatarien Ama arec? Ez, ez: finitu cen misericordiaren dembora. Non beata Virgo, non Angeli, non Apostoli propiciabuntur pereunti: denac egonen dira zure contra. ¡O becataria! Considera zazu untsa pausu au. ¿Cer pensamendu ibilico tuzu orduan alde gucietaric acusatua, condenacioneco sententia errecibitzeco punduan? ¡Ay eta cer turbacione eta icara azquenean Yuyazale Divino arec alchaturic vere tronutic sententia pronunciatzen duenean! "Aparta cite eneganic, madaricatua, zuaci betico sura; zuaci ementic, becatari aborrecigarria: emazte madaricatu eta soberviaz betea, zuaci ementic; eztuzu merechi ene presencian egoitea: zuaci betico sura". Orduan zuc arima becataria, yaquinican ere eztuzula erremedioric, bana ecin etsituz libratu nahiz estatu ain terrible artaric, escatuco duzu auxilio eta proteccionea Maria Saindua, Aingueru eta Sainduer, particulazqui Aingueru guardiacoari. Lagun nezacie Aingueru Sainduac Maria Saindua ene Ama maitea, misericordiaren ama ciren bezala libra nezazu etsay otaric. Bana ihardetsico dauzute: ezta zuretzat misericordiaric. Ene Yesus Redentore maitea, izan zazu nitaz (misericordia) pietate, salva nezazu zure odolarenegatic! Zuaci ene vistatic madaricatua, ihardetsico dauzu, zuaci betico sura, eta eremanen ciuzte Ynfernucan etsayec presundegui eternaletara, eta etsico tuzte bortac secula verrez ez idequitzeco. ¡O pensamendua! ¡O egui terriblea! ¡O eternitatea! ¡O Ynfernua! ¿Nola otan sinesten duzularic, ¡becataria! duzu valore eta curaya becatuetan seguitzeco? ¿Nola menturatzan cira becatuzco conciencia batequin zure Yaincoaren errecibitzera? ¡Ah miserabilia! ¿Determinaturic zaude ya aurten ere gaizqui cofesatzera, indignoqui cominiatzera, vicio, costuma, adisquidantza ori ez uzteagatic, becatu ori aimbetze (dembora) urte dela confesioan gordetzen duzun ori ecin menturatuz beldurrez declaratzera? ¡Ay bada zutaz eriotzeac arrapatzen bazaitu estatu ortan! ¡Ay zutaz ilen eta vicien Yuyazalearen aitzinean presentatzen bacira zure conciencia erreglatu gabe! ¡Ay zutaz eternitate gucian! Etzitela veraz izan cenzugabea: eguin zazu oray orduan nahico duzuna eguin izan bacinu. ¿Cer (emanen cinuque) eman cinezaque lance artan berriz mundura itzultzeagatic, cer, oray duzun dembora au izaiteagatic? Converte zaite bada oray Yaincoari; garbi zazu ahalic lasterrena zure conciencia becatuetaric confesione un baten medioz; amorocatican eta zure yuyamenduan ait dezazun sententia uros bat seguidan yuan citen gozatzera eternitateco gloria.